# GARDENTASUNAREN ATARIA

## 1.- SARRERA

19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasun, informazio publikoa lortu eta behar bezala gobernatzeari buruzkoak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehenengo Tituluko xedapenak honako merkataritza-sozietateei aplikatuko zaizkie: sozietatearen kapitalean herri-administrazioen edo beste herri-erakunde batzuen partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, 100eko 50etik gorakoa duten horiei. OARSOALDEA, S.A. (aurrerantzean, OARSOALDEA) eskualdeko lau Udalek (Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriak) osatutako konpainia da eta guztien artean beren titulartasuna sozietatearen kapitalaren 100eko 100a da. Ondorioz, OARSOALDEAri Legea aplikagarria zaio.

## 2.- ERAKUNDE-, ANTOLAKETA- ETA PLANGINTZA-INFORMAZIOA

### A.- OARSOALDEAren funtzioak

OARSOALDEA irabazi-asmorik gabeko eskualdearen garapen-agentzia bat da eta tokiko herri-sektorearen barruan sartzen da. Eskualdeko lau Udalek 1993. urtean eratu zuten eta sozietatearen estatutuen bigarren artikuluari jarraiki, eskualdearen garapen sozioekonomikorako eta biztanleen bizi-kalitatearen hobekuntzarako bideratuak dauden zereginak eta jarduerak burutzea du xede.

Sozietatearen helburua betez, OARSOALDEAk lan-orientabidearen, prestakuntzaren, enpresa-sorreraren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erreklamazioen, hiri-birgaitzearen eta abarren eremuetan zerbitzuak eskaintzen dizkie partikularrei. Era berean, enpresek zerbitzuak jasotzen dituzte honako arloetan: langileak hautatzea, finantzaketa, industria-lurzorua, enpresa-kudeaketa, etab.

### B.- Araudi aplikagarria

OARSOALDEA sozietate anonimoa da eta, nagusiki, Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuek nahiz Kapital Sozietateei buruzko Legeak, uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoak, xedatutakoaren arabera arautzen da.

Kontratazioaren arloan, OARSOALDEAri Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoa, aplikagarria zaio, 3.1.d artikuluan xedatutakoarekin bat.

Kontratuak esleitzearen eremuan, OARSOALDEAk herri-administrazioaren izaera ez duen esleipen-ahalmena duenez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen barruan III. Liburuko I. Tituluari dagokion II. Kapitulua aplikatuko zaio. Halaber, Kontratatzailearen Profilean argitaratuak dauden Kontrataziorako Barne Argibideei erreparatuko zaie.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat, OARSOALDEAk sinatzen dituen kontratuak, herri-administrazioarekin egindakoak izan ezik, kontratu pribatuak dira eta ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Zuzenbide Pribatuak arautzen ditu.

### C.- Antolaketa-egitura

OARSOALDEAk estatutuetan aurrez ikusi ostean, hurrengo organo kolegiatuak ditu:

1.- Lau Udal bazkideek osatutako Batzar Nagusia. Bakoitzak sozietatearen kapitalaren %25a du.

2.- Modu berean, lau Udal bazkideek osatutako Administrazio Kontseilua. Une honetan burutza Pasaiako Udalak eta idazkaritza Oiartzungo Udalak dute.

Estatutuz aipatu organo kolegiatuez gain, sozietateak zuzendari nagusia du eta kargua Fernando Nebreda Díez de Espada jaunak, Zuzenbidean lizentziatuak eta enpresen administrazioan nahiz kudeaketan masterra duenak, betetzen du. OARSOALDEAra iritsi baino lehen, Debegesan, Debabarreneko Garapen Sozioekonomikorako Sozietatean, lan egin zuen. Fernando Nebreda jauna OARSOALDEA, S.A. 1993. urtean sortu zenetik da zuzendari nagusia.

Zuzendaritza Nagusipean honako Zuzendaritzak daude:

- "Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Estrategia" Saileko Zuzendaritza, zeinaren lanpostua Beatriz Brosa Gómezek betetzen du.

- "Pertsonei Arreta" Saileko Zuzendaritza, Patxi Arrazola Soto jaunaren

- "Oarsoaldea Helmuga" Saileko Zuzendaritza, Olatz Olaizola Tarragona.

- "Hiri-Berriztapena eta Mugikortasuna" Saileko Zuzendaritza, Ainara Lasarte Urquia.

- "Euskara" Saileko Zuzendaritza, Joxe Luix Agirretxe Mitxelena jauna.

- "Kontsumitzailearentzako Informazioa" Saileko Zuzendaritza, Anabel Sarasola Etxegoien.

- "Antolakuntza eta Zeharkako Elementuak" Zuzendaritza Bakartxo Villar Iraola.

OARSOALDEAren zerbitzuak zazpi sailetan banatuak daude:

- Ekonomia eta lurraldearen garapenerako estrategia.
- Pertsonei arreta
- Oarsoaldea helmuga.
- Hiri berriztapena eta mugikortasuna.
- Kontsumitzaileari arreta.
- Euskara.
- Erakundea eta zeharkako elementuak.

## 3.- EKONOMIA, AURREKONTU ETA ESTATISTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA

**A.- 2023. urtean egindako kontratuak** (2023ko uztaila iraila bitartean)

**Erosketak zuzeneko esleipenaren bitartez** (15.000 eurotik beherakoak):

| | |
|---|---|
| Prestakuntza | 150,00 |
| Telefonoak | 7.611,52 |
| Garraioa eta mezularitza | 778,16 |
| Bulegoko materiala | 2.032,07 |
| Alokairuak | 7.127,23 |
| Publizitatea eta propaganda | 13.240,56 |
| Zerb. profesional indepen. | 65.118,68 |
| Hornidurak | 9.162,68 |
| Konponketa eta kontserbazioa | 8.996,93 |
| Garbiketa | 7.833,47 |
| Beste gastu batzuk | 7.859,28 |
| Langabetuentzako prestakuntza-ikastaroak | 3.618,74 |
| **GUZTIRA** | **133.529,32** |

**15.000 eurotik gorako erosketak: lehiaketa publikoa**:

| ESLEIPENA | XEDEA | EPEA | BETEBEHAR EKONOMIKOAK |
|---|---|---|---|
| AINHOA NAVALPOTRO MALKORRA | BERPIZTU-LANERATZEKO BERRIKUNTZA ETA ESPERIMENTAZIO GUNEA | 2023/7/1 2023/12/31 | 18.029,00 |

**DATU ESTATISTIKOAK**

| **PROZEDURA** | **AURREKONTU-BOLUMENA** | |
|---|---|---|
| **Zuzeneko esleipena** | **133.529,32** | 88% |
| **Lehiaketa publikoak** | 18.029,00 | 12% |



**B.- 2023. urtean sinatutako hitzarmenak** (2023ko uztaila iraila bitartean):

| OARSOALDEAK HARTUTAKO BETEBEHAR EKONOMIKOAK | | | |
|---|---|---|---|
| SINATZAILEAK | XEDEA | EXEKUZIO EPEA | HARTUTAKO BETEBEHAR EKONOMIKOAK |
| DON BOSCO | OPERACIONES AUXILIARES DE FABRICACION MECANICA 22201452 | 2023/9/11<br>2023/12/31 | 12.480,00 |

C.- 2023. urtean emandako diru-laguntzak eta laguntzak (2023ko uztaila iraila bitartean):

Ez da egon epe honetan

D.- 2023. ekitaldirako aurrekontua.

| **2023KO OARSOALDEAREN HITZARMEN OROKORRA** | **KOSTUA** | **KANPO BALIAB.** | **ERRENTERIA** | **LEZO** | **OIARTZUN** | **PASAIA** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **EKONOMINA ETA LURRALDEA GARATZEKO ESTRATEGIA** | | | | | | |
| INDUSTRIA GARA ETA BERRI DADIN SUSTATZEA ETA HORRI LOTUTAKO ZERBITZUAK | 809.251,95 | 471.904,61 | 164.789,88 | 52.174,63 | 56.210,97 | 64.171,86 |
| **PERTSONEI ARRETA** | | | | | | |
| PERTSONEI EMANDAKO ARRETA, AUKERA-SEKTOREA | 28.999,50 | 1.273,87 | 12.890,05 | 3.381,61 | 4.550,20 | 6.903,76 |
| GIZARTE-EGOERA AHULENEKO KOLEKTIBOEN GIZARTERATZEA ETA LAN-MUNDURATZEA SUSTATZEA | 5.669.887,26 | 4.966.083,78 | 214.588,28 | 150.762,69 | 158.465,24 | 179.987,27 |
| **OARSOALDEA HELMUGA** | | | | | | |
| SEKTORE TURISTIKOA, ESKUALDEAREN ERAKARGARRITASUNA DUELA ETA POTENTZIALA DUEN JARDUERA. MERKATARITZA, ALIATUA | 547.433,77 | 148.886,37 | 136.630,96 | 51.757,37 | 82.469,94 | 127.689,13 |
| **HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA** | 395.016,98 | 251.284,51 | 47.148,24 | 25.804,58 | 30.317,22 | 40.462,44 |
| **EUSKARA** | 198.288,77 | 2.184,62 | 74.913,41 | 31.878,62 | 39.948,58 | 49.363,54 |
| **KONTSUMO BULEGOA** | 110.763,52 | 45.023,90 | 30.804,67 | 7.909,90 | 10.695,58 | 16.329,48 |
| | **7.759.641,74** | **5.886.641,65** | **681.765,50** | **323.669,41** | **382.657,72** | **484.907,47** |
| **HITZARMEN ESPEZIFIKOAK eta/edo kontratazio-programetara bideratutako aurrekontuen ekarpena** | | | | | | |
| EREITEN TAILER OKUPAZIONALA (bazterkeria egoeran dauden 12 pertsonei zuzendurikoa, nekazaritza eta sukaldaritza aktibitateen bidez) | 55.950,39 | 0,00 | 0,00 | 18.650,13 | 18.650,13 | 18.650,13 |
| Berpiztu Poligonoak Lezo eta Oiartzun | 15.000,00 | 0,00 | 0,00 | 6.000,00 | 9.000,00 | 0,00 |
| | **70.950,39** | **0,00** | **0,00** | **24.650,13** | **27.650,13** | **18.650,13** |
| **ENKARGUAK** | | | | | | |
| Kontratazio programak (iazko zenbateko berdina) | 24.685,98 | 0,00 | 24.685,98 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| ASAP (Oiartzunen etxebizitzen alokairua sustatzeko zerbitzua) | 21.749,25 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 21.749,25 | 0,00 |
| Andonaegiko auzoaren birgaitzea | 96.162,26 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 96.162,26 |
| **GUZTIRA** | **7.973.189,62** | **5.886.641,65** | **706.451,48** | **348.319,54** | **432.057,09** | **599.719,86** |

**2023KO OARSOALDEAREN AURREKONTUA PARTIDEN ARABERA.**

| | |
|---|---|
| Nominak | 2.045.993,98 |
| Gizarte Segurantza | 619.996,31 |
| Bidai gastuak | 27.150,00 |
| Program Informatikoak | 119.822,34 |
| Informatika elementuak | 14.500,00 |
| Instalakuntza | 900.000,00 |
| Altzariak | 0,00 |
| Finantza gastuak | 8.503,75 |
| Telefonoak | 53.907,00 |
| Mezulariak | 3.625,50 |
| Bulego materiala | 23.548,00 |
| Publizitatea, propaganda eta kanpainak | 154.920,80 |
| Errepresentazio gastuak | 8.421,00 |
| Suskripzioak | 4.923,00 |
| Aholukariak | 223.660,54 |
| Hornidurak | 12.491,25 |
| Mantenua eta konponketak | 30.388,30 |
| Garbiketa | 13.305,60 |
| Beste gastuak: ikastaroak, enplegu programak, kanpainak | 3.708.204,52 |
| | 7.973.361,89 |

**AURREKONTUAREN GAUZATZE-MAILA 2023/09/30ean**

| SAILA | URTEKO AURREIKUSPENA | Exekuzio maila 30/09/2023 | % |
|---|---|---|---|
| EKONOMIA ETA LURRALDE. GARAPEN. | 809.251,95 | 910.782,61 | 113% |
| PERTSONEI ARRETA | 5.779.523,12 | 3.711.550,34 | 64% |
| OARSOALDEA HELMUGA | 547.433,77 | 442.411,54 | 81% |
| HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA | 527.928,49 | 367.425,97 | 70% |
| OMIC-KIUB | 198.288,77 | 80.149,45 | 40% |
| EUSKARA | 110.763,52 | 136.048,92 | 123% |
| | 7.973.189,62 | **5.648.368,83** | |

**F.- 2022eko urteko kontuak eta ikuskaritza-txostena.**